


Uribarri Ganboa





7,96 km |  JOAN-ETORRIA
ERRAZA |  629m |  Walking
2h. 15' |  Running
1h. 15' |  www.walkingandrunning.es




URIBARRI GANBOA > LANGARA GANBOA





 Uribarri Ganboa

Arabako Arrazua-Ubarrundia udalerrian kokaturik, **Uribarri Ganboako** urtegia, Gasteiz eta Bilboko inguruak urez hornitzen dituen urtegia izateaz gainera, aisiarako eremu zabala ere bada, eta kirolzaleak sarri bertaratzen dira, urtegiak aire zabaleko askotariko aisia-aukerak eskaintzen baititu.

 Urtegi presaren ondoko aparkalekutik abiatzen da ibilbidea ( 1). Urtegi behatokitik, ( 2) ur-gaineko zabalera ikusiko dugu batetik, eta gure ibilbidearen goranzko bidea bestetik. Zadorra gaineko zubia igarota ( 3) igoera arin bati ekingo diogu, mendi baxuan barneratuko gaituena.

Bidean galtzerik ez dago, zutoinez ondo seinaleztatua dagoelako ( 4); bidegurutzera iristean ( 5), eskuinean Langara Ganboa izango dugu, eta, ezkerrean, berriz, bi bidezidor; horietatik garaiena hartuko dugu, mendi-hegalari itsatsita doana ( 6).


Handik bideak San Juan Gaineraino ( 7) ( 8) eramango gaitu, eta bertatik Uribarri Ganboako urtegia ikusiko dugu bete-betean, ia 360°-an, Zuhatza uhartea eta Elgeako mendilerroa barne. Paisaia behatzen egoteko toki ezin hobea da.




 1




 2




 3



 4



 5



 6

Walking & Running VITORIA-GASTEIZ

Itzulera alderik baxuenetik egingo dugu, hau da, uraren ertzetik gertuen dagoen aldetik, berriz ere Langara Ganboako bidegurutzeraino. Hortik aurrera, Arabako Ibilbideen Sarearen seinaleak (📍9) argiak dira, urtegia betiere gure ezker aldean ikusten dugularik, Langara Ganboara (📍10) daraman errepideraino. Puntu horretan, aurrera jarrai dezakegu, herriraino, edo bestela, itzulerako bidea hartu.



interesguneak

- Arabako Ibilbide Berdeen Sarea.
- Garaioako Parke Probintziala.
- Zuhatza uhartea.

informazio gehiago

www.walkingandrunning.es
www.turismo.euskadi.eus

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



EUSKADI
BASQUE COUNTRY
#Basqueexperience